



2024KO DANTZA UDALEKUA IPURUAN

Datak: Ekainaren 26tik – Uztailaren 24ra

Prezioak: 38,50€ Eibarren erroldatuak / 77,00€ ez erroldatuak

Izena emateko prozedura:

- **Maiatzaren 2tik 12ra:** Aurretiko izen-ematea (zozketan parte hartzeko) Ipuruako atezaintzan edo eibarkirola.eus webgunean.
- **Maiatzaren 13ean:** Zozketa eguna (13:00etan Ipuruako harreran) eta emaitzen argitaratzea (Ipurua kiroldegiko iragarki panela edo eibarkirola.eus).
- **Maiatzaren 14etik 15ra:** Zozketako zerrendei alegazioak aurkezteko epea (Ipurua kiroldegiko iragarki-panela edo eibarkirola.eus). Alegazioak idazkaritza@eibarkirola.eus bidali beharko dira.
- **Maiatzaren 16ean:** Zozketan parte-hartu dutenen inskripzioen hasiera. (Ipuruako idazkaritzan aurrez aurre zozketan suertatutako hurrenkeraren arabera).
- **Ekainaren 3n:** zozketan parte-hartu ez dutenentzat inskripzioen hasiera
- **Ekainaren 17n:** Ikastaro bakoitzaren hasieraren baieztapena.

Baldintzak:

- Ikastaroei hasiera emateko, gutxienezko inskripzio kopuru baliodun bat izan beharko dute, bestela, ikastaroa bertan behera geratuko da.
- Ikastaroaren ordainketa txartelan bitartez egin beharko da. Era berean, izena ematerakoan, kontu korrante zenbaki bat eman beharko da ikastaroa bertan behera geratzen bada ordaindutako dirua itzultzeko.
- Abonatuak abonatu-txartelarekin zuzenean tornoetatik pasa ahal dira; abonatu ez direnek berriz, atezaindegitik igaro beharko dute eta ikastaroaren ordainagiria erakutsi.